



Lasterbidol

Donostiako kaleek arnasa hobeto har dezaten

Lasterbidol

Donostiako kaleek arnasa hobeto har dezaten



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Uda honetan, erdigunean autoz ibiltzea ez da izango, agian, oso ideia ona. Bisitari gehiago, hiria hobetzeko obrak, hango eta hemengo ekitaldiak... Litekeena da trafiko pilaketa ohi baino handiagoa izatea. Arazo horiek saihesteko edo, gutxienez, arintzeko, hona hemen sei erremedio ziur eta eraginkor:



1. erremedioa

Erdiguneko auto pilaketak arintzeko, mugi zaitetz oinez eta gozatu hiriaz



Aprobetxatu distantzia laburreko hiri batean zaudela. Egoera fisiko on samarrean dagoen edonork egin ditzake oinez 4-5 kilometro lanera edota bestelako jardueretara joateko, eta, beraz, oinez egiteko modukoak dira gure hiriko ibilbide gehienak.



Oso ohitura osasungarria. Hirian oinez mugitzeak onura handiak dakarzkio osasunari. Eta udan, eguraldi onarekin, hirian barrena ibiltzea ere berebiziko esperientzia izan daiteke zentzumenentzat.



2. erremedioa

Erdiguneko auto pilaketak arintzeko, zoaz bizikletaz eta jarri sasoi onean



Oso ohitura osasungarria hau ere. Garraibide ekologiko eta merkeena izateaz gain, bizikletaz mugitzeak on handia egiten dio osasunari: sistema kardiobaskularren funtzionamendua hobetzen du, giharrak indartzen ditu, kolesterola murrizten du...



Egokia familientzat. Donostian 73 km bidegorri ditugu, gehienak edonork baliatzeko modukoak, eta, beraz, aukera ezin aproposagoa dira familien eguneroko joan-etorrietarako.



3. erremedioa

Erdiguneko auto pilaketak arintzeko, zoaz trenez eta gozatu beti garaiz ibiltzeaz



Garaiz iritsiko zara beti, nahiz eta errepidea itxita egon, kirol jardueraren edo manifestaldiren baten ondorioz.



Murriztu CO2 isuria. Toki batetik bestera mugitzen garen bakoitzean, CO2 lorratz bat uzten dugu atzean. Lorratz hori oso trinkoa izan daiteke, asko kutsatzen duen garraibide bat erabiltzen badugu, edo ia ikusezina, garraibide jasangarri bat –hala nola tren– erabiltzen badugu.



4. erremedioa

Erdiguneko auto pilaketak arintzeko, zoaz autobusez eta ez kezkatu aparkatzeaz



Ahaztu aparkatzeaz. Autoz mugitzeak gainezka dauden guneeetan leku bila ibiltzea dakar. Garraio publikoarekin, arazorik eta estresik gabe iritsiko zara helmugara.



Atera etekina autobus erreiriari. Autoentzako erreitik baino askoz azkarrago joaten da autobus erreitik.



5. erremedioa

Auto pilaketak arintzeko, utzi autoa erdigunetik kanpo eta ahaztu buruhausteak



Aparkatu iritsi bezain laster. Kanpotik bazatoz, ideia ona izan daiteke autoa doan uztea hiriko sarreran, eta garraio publiko bidez edo oinez mugitzea gero. Aukeretak bi izan daitezke Miramon (17. autobus linea) eta Igara (CIC nanoGUNeren ondoko aparkalekua).



Auto pilaketarik bada, ez joan haraino. Erdigune-erdigunean ez daudenez gero, apur bat errazagoa txandakako aparkaleku hauetara iristea: Easoko aparkalekua, Pio XII.aren plazakoa, autobus geltokikoa...



6. erremedioa

Autoa hartzea beste erremediorik ez baduzu, zoaz saihesbidetik, erdiguneko auto pilaketekin topo ez egiteko



Erabili saihesbideak zentzuz. Autoa gehien kutsatzen duen aukera izan arren mugitzeko beste aukerarik ez baduzu, egizu proba saihesbidetik, erdigunetik igaro ordez. Pilaketa arintzen laguntzeaz gainera, lehenago iritsiko zara.



Molda zaitetz trafikora. Neguan eta udan berdin janzen ez garen moduan, hiria eta trafikoa ere aldatu egiten dira urte sasoiaren arabera. Hortaz, gomendio huez gain, erabili zure sen ona zirkulaziora moldatzeko.

